

Merkataritza elektronikoa egiten duten eta 10 langile edo gehiago dituzten enpresen kopurua ia %30 hazi da 2010etik Donostian eta Bilbon

Webgunea duten enpresen erdietan baino gehiagotan euskaraz jardun ahal da

Merkataritza elektronikoa egiten duten eta 10 langile edo gehiago dituzten enpresen kopurua ia %30 hazi da 2010 eta 2017 artean Donostian eta Bilbon, Eustaten datuen arabera. Gasteizko kasuan igoera %11,7koa da. Igoera horrekin tamaina horretako enpresetan merkataritza elektronikoa egiten dutenen kopuruak hiru hiriburuetan %31,8, %30,4 eta %25,7 dira.

Eskualdeka, 10 langile edo gehiago dituzten Euskal AEko enpresen %29,0k egin zuen erosketa edo salmentarik **merkataritza elektronikoaren** bidez. Portzentajerik handiena, Gorbeia Inguruak, %41,3; txikiena, Arratia-Nerbioi, %18,9. Gorbeia Inguruak eskualdeaz gain Araban, azpimarragarriak dira baita ere Urola Kosta Gipuzkoan (%33,9) eta Markina-Ondarroa Bizkaian (%31,8).

Internet baduten 10 langile edo gehiagoko enpresak zeinek **herri-administrazioekin izapide elektronikoak** egiten baitituzte nagusi dira Euskal AEko eskualdeetan orotan, %96,0 2018an, 1,2 puntu gehiago 2017an baino. Proportzio handiagoan dira Markina-Ondarroan Bizkaian, %99,8, Goierrin Gipuzkoan, %98,8, eta Arabako Mendialdean Araban, %97,8. Halaz ere, eskualdeak oro daude %90en gainetik, Arabako Lautada izan ezik (%89,9).

IKT ekipamenduetan –Informazioaren eta Telekomunikazioaren Teknologia– 10 langile edo gehiagoko Euskal AEko enpresek ezarpen maila handiak dituzte, eta eskualdeetan orotan %90 pasakoa da **Internet** duten enpresen kopurua, guztirakoaren batezbestekoa %99,3 delarik (bost hamarren gehiago 2017an baino) eta, **web-orria** dutenen kasuan, %92,0 (2,9 puntu gehiago 2017an baino). Horietarik azpimarragarriak dira Arabako Ibarrek Araban, %100, Enkartazioak Bizkaian, %96,8, eta Debagoiena Gipuzkoan, %93,3.

Sare informatikoen portzentajeak ere oso altuak dira 10 langile edo gehiagoko enpresetan erkidego osoan. Batez bestez, %92,4k dauzka, eta nabarmengarriak dira Markina-Ondarroa Bizkaian, %98,0, Arabako Lautada Araban, %97,3, eta Debagoiena Gipuzkoan, %93,0.

10 langile edo gehiagoko Euskal AEko enpresen %54,2k **kode irekidun programak** darabiltza. Nabarmengarriak dira eskualde hauek: Debabarrena Gipuzkoan, %67,9, Gorbeia Inguruak Araban, %61,3, eta Enkartazioak Bizkaian, %61,0.

Euskararen presentzia Euskal AEko enpresen web-orrietan

Euskaraz ere badiren web-orriak, oroz gain, Gipuzkoako eskualdeetako enpresetan daude (%64tan batez beste). Erkidegoan %52,3tan. Urola-Kostan eta Debagoienean, %75etan baino gehiagotan; Gipuzkoako gainerako eskualdeetan, %49tan baino gehiagotan. Ondoren, Bizkaian %47,8tan batez beste; Markina-Ondarroa, Gernika-Bermeo eta Enkartazioetako enpresen web-orrietako %70etan baino gehiagotan euskaraz sartu ahal da. Azkenik, Araban %40,8tan batez beste; nabarmengarria da Arabako Mendialdea, non orrien

%50etan baino gehiagotan euskaraz sartu ahal den. Ez da ehuneko horretara iristen Arabako gainerako eskualdeetan.

Euskal AEko hiriburuen artean, IKT ekipamenduetan portzentaje oso antzerakoak iristen badira ere 10 langile edo gehiagoko enpresetan, Donostia nabarmentzen da azterturiko kategoria guztietan, salbu eta administrazioarekiko izapide elektronikoetan, non den nabarmentzen Bilbo. Euskal AEko hiriburuen portzentajeok antzekoak badira ere, salbuespena dator euskaraz eskuratu ahal diren web-orrien kasuan, non argiki den nabarmentzen Donostia, %63,9rekin, eta ondoren Bilbo, %48,8rekin, eta Gasteiz, %40,9rekin.

1 taula: Euskal AEko IKT ekipamenduak, 10 langile edo gehiagoko establezimenduetan, hiriburu eta eskualdeen arabera (%). 2018

	Internet		Web orria		Sare informatikoak	Kode irekidun programak	Merkataritza elektronikoa (3)
	Konexioarekin	Administrazioarekin izapideak egiten ditu (1)	Badute	Euskaraz (2)			
EUSKAL AE	99,3	96,0	92,0	52,3	92,4	54,2	29,0
Vitoria-Gasteiz	99,0	93,7	90,7	40,9	91,4	54,3	25,7
Bilbao	99,2	96,4	94,1	48,8	92,6	56,8	30,4
Donostia / San Sebastian	99,9	95,3	96,3	63,9	95,5	58,0	31,8
ARABA/ÁLAVA	98,9	93,9	90,1	40,8	91,9	53,8	27,2
Arabako Ibarak/Valles Alaveses	99,9	95,5	99,9	41,2	82,5	55,4	32,4
Arabako Lautada/Llanada Alavesa	98,8	89,9	90,7	46,5	97,3	57,9	37,7
Arabako Mendialdea/Montaña Alavesa	90,0	97,8	78,2	94,0	87,6	19,2	28,3
Errioxa Arabarra/Rioja Alavesa	96,9	92,1	84,2	26,5	90,2	43,2	22,0
Gorbeia Inguruak/Estribac. del Gorbea	99,9	97,0	91,0	39,3	94,1	61,3	41,3
Kantauri Arabarra/Cantábrica Alavesa	99,6	96,0	86,4	43,2	96,0	52,7	27,7
BIZKAIA	98,9	96,4	92,7	47,8	93,5	54,0	27,8
Arratia Nerbioi/Arratia-Nervión	99,9	98,4	85,1	58,5	96,9	58,1	18,9
Bilbo Handia/Gran Bilbao	98,6	95,6	92,8	38,2	93,2	53,5	25,5
Durangaldea/Duranguésado	99,3	98,5	90,6	56,4	95,2	49,2	31,7
Enkartzazioak/Encartaciones	99,9	97,9	96,8	73,7	91,5	61,0	19,5
Gernika-Bermeo	99,6	98,2	90,7	82,2	95,8	58,1	29,5
Markina-Ondarroa	99,9	99,8	81,8	99,9	98,0	50,8	31,8
Plentzia-Mungia	97,9	94,6	95,1	64,3	95,2	44,4	26,9
GIPUZKOA	99,8	96,4	91,8	64,0	91,2	54,5	31,8
Bidasoa Beherea/Bajo Bidasoa	98,6	96,4	86,9	49,4	89,9	55,6	25,3
Debabarrena/Bajo Deba	99,9	94,5	91,7	61,3	92,6	67,9	33,6
Debagoiena/Alto Deba	99,9	96,4	93,3	75,2	93,0	56,1	33,8
Donostialdea	99,9	97,5	91,1	56,7	88,7	51,1	33,5
Goierri	98,7	98,8	89,3	74,4	87,8	50,5	28,4
Tolosaldea/Tolosa	99,0	97,5	85,7	65,0	90,5	43,7	31,5
Urola-Kostaldea/Urola Costa	99,0	96,3	90,1	76,8	84,9	48,1	33,9

(1) Internet baduten establezimenduen artean, administrazioekin elektronikoki elkarreragiten dutenen portzentajea

(2) Web baduten establezimenduen artean, euskaraz badutenen portzentajea

(3) Merkataritza Elektronikoa datuak 2017ko abenduaren 31koak dira

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Ohar metodologikoa: Informazioaren gizartearen inkesta –IGI–, Enpresak 2018 izeneko eragiketa estatistikoak funtsezko aldaketa metodologikoa sartu du eskualdeen eta hiriburuen datuez bezainbatean, eta seriea berriz zenbatetsi da 2011tik.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62